



ALEA

arabako aldizkaria



EKAITZ SAMANIEGO

**"EDERRA DA BOTEREARI
ARRAKALAK SORTZEA"**

Gasteizen

Bai

MERKATARITZARI, OSTALARITZARI, ZERBITZUEI, EUSKARARI

Bai aitortza da,
konpromisoa.

Bai da laguna, bezeroa
hartzen dugun modua.

Bai bizi itzako
modua ere bada.

Bai keinu bat da.

#gasteizenbai

PARTE HARTU 'ZURE KEINUAK HIRIA ABERASTEN DU'

Igo zure argazkia bai keinua eginez **instagramera**
#gasteizenbai traolarekin.
50 euroko erosketa-bonoak zozketatuko ditugu.

Egitaraua

OTSAILAK 6, OSTEGUNA
Kale antzerkia.
Gorbea kalean. 19:30ean.

MARTXOAK 7, LARUNBATA
Umeendako ikuskizuna.
Boulevard merkataritza gunean
(Nodal plaza). 17:30ean.

APIRILAK 3, OSTIRALA
Hiriko ostalaritza, zerbitzu eta
merkataritzako hiru negoziari
aitortza.
Erdigunean. 18:30ean.

MAIATZAK 5, ASTEARTEA
Sare sozialetako lehiaketaren
sari banaketa.
Oihanederren.

gasteizenbai.eus



ALEA 224

2020-01-31 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

MIKEL BURUAGA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Historiaren pasarteak berreskuratzeko ekitaldiak.
- 10 **Elkarrizketa.** Ekaitz Samaniego.
- 14 **Iritzia.** Cira Crespo, 'Ametsak'
- 15 **Gutuna.** 'Ate irekiak', Maribel Lopez de Luzuriaga.
- 16 **Sarea.** #KobeBryant.
- 17 **Irudia.** Alejo Morenoren erakusketa.
- 18 **Kultura.** Iruña-Veleia, epaiketaren atarian.
- 19 **Ekonomia.** Arabako Mahastiak sor-markari bidea eman diote.
- 20 **Gizarte.** Gorbeialdeko argazki sozioekonomikoa.
- 22 **Datuak eta laburrak.**
- 24 **Gizarte.** Boilur beltzaren azoka ospatuko dute Ribabellosan.
- 25 **Kirola.** 'Arabakomendiak' webgunea sortu dute.
- 26 **Gure Bazterrak.** San Migel Zaharra leizezuloa.
- 28 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Cira Crespo



Ezagutza xede, beste garaietara egindako jauzia

Iraganera hurbiltzeko modua ahalbidetzen dute berregite historikoeak, bai horietan parte hartzen dutenentzat zein ikusle direnentzat. Erromatar Inperioaren azken urteak edota garai napoleonikoa lantzen dituzten elkarteak daude, eta baita, beste ikuspegi batetik, Historia Garaikideko gudak lantzen dituztenak ere. Testua: **Juanma Gallego.**



raganera hurbiltzeko modu asko daude. Liburuak, filmak, dokumentalak, museoak edota aldizkariak dira horietako batzuk. Baina azken urteotan gero eta pisu gehiago hartu dute berregite historikoek. Garai urrunetako batailen antzezpenez harago, gero eta gehiago, horretan ari diren elkarteak ezagutza historikoa zabaltzeko bide berriak aurkitzen ari dira.

Erromatar garaira salto eginda, gurean Cohors Prima Gallica elkarteak da erreferentzia nagusia. 2002an jaio zen, Iruña Veleiako aztarnategiaren inguruan, baina, 2009an, grafito faltsuen haritik sortutako polemikaren ondoren, elkartearen barruko berrantolaketa egin zuten, helburuak berrikusita.

"Ahal dugun heinean, Erromako mundu berantiarra berreraikitzen saiatzen gara", dio elkarteko kide Luis Ortizek. "Askotan erromatarren irudi finko bat ohi datorkigu burura, baina kontuan izan behar dugu Inperioaren amaieran gauza asko aldatzen direla, hala nola janzkera, apaingarriak edota hirietako giroa".

Garai horretan, Iruña-Veleia babesten zuen kohortea dago elkartearen izenaren oinarrian. Inperioa erori baino lehenagoko garai horiek ez ziren batere samurrak izan, *roman way of life* horretan parte hartu nahi zuten herriak Inperioaren mugetan pilotzen zirelako. Garai horretan, legioak bi multzotan banatuta zeuden: enperadorearen esku *comitatenses* zeritzenak zeuden, bataila handietan parte hartzen zutenak, eta, beharren arabera, leku batetik bestera mugitzen zirenak. Bigarren maila batean, *limitanei* izeneko tropak zeuden, batez ere Inperioaren mugetan ezarrita.

Iruña-Veleian egon zen kohorte baten izena hartu dute Cohors Prima Gallica elkarteko kideek. COHORS PRIMA GALLICA



Batailaren punturik gorenean mota guztietako sentimenduak azalerazten direla azaldu du Asier Merinok. GASTEIZKO

BATAILA 1813

"UR-BEROGAILU BAT ERAIKI DUGU, ETA ASMATU BEHAR IZAN DUGU NOLA FUNTZIONATZEN ZUEN"

"KONTUA EZ DA ANTZEZPENA OSO DEIGARRIA IZATEA, JENDEAK HORI ULERTZEA BAIZIK"

LUIS ORTIZ

"Penintsula nahiko erromanizatuta zegoenez, hemen ez zegoen tropa askorik. Cohors Prima Gallica, hain justu, *limitanei* motakoa zen", azaldu du Ortizek. "Horregatik, godoek Pirinioak gurutzatu zituztenean, *comitatenses* motako tropak ekarri behar izan zituzten, horiei aurre egiteko". Une horretara arte mugak mantendu ziren arren, herri germanikoen presentzia aspaldikoa zen, eta, garai horretan, Erromako legioen goiko postuetan ere jatorri godoko buruzagiak bazirela gogorarazi du Ortizek.

Kohorte horren inguruko informazio printza batzuk kontserbatu dira gaurdaino. Adibidez, hainbat hilarri eta izen, baino horiek ez dira, noski, baliatu dituzten informazio bakarrak. Batez ere adituen ikerketetan oinarritzen dira elkartean garai horiek berregiten saiatzeko. Historialariek, arkeologok, numismatikariek edota epigrafistek egindako ekarpena dute oinarri. Are gehiago, elkartean bertan badira arlo zehatzetan espezialista diren adituak. "Gure taldean gehienak historialariak gara, baina irakasleak ere badira, eta horiek batez ere alde pedagogikoa lantzen dute. Garaiko armetan trebatuta dagoen ingeniari bat dugu, eta ehungintzan aditua den beste lagun bat. Tira, esango nizuke Espainia mailan Erromatar Inperio berantiarreko ehunetan aditurik handiena bihurtu dela".

Arkeologia esperimental

Hortaz, dibulgazioa bai, baino harago doa kontua. Izan ere, praktikan arkeologia esperimental lantzen dute; hau da, iraganeko arazoei nola aurre egiten zitzaien argitzea helburu duen diziplina praktikoa baliatzen dute. "Adibidez ur-berogailu bat berreraiki behar izan dugu. Zaragozako artisauren kolaboraziori esker egin dugu, eta asmatu behar izan dugu nola funtzionatzen zuen".

Askotarikoak dira erabilitako iturriak. "Zuzenean garaiko elementuetara joan beharra dago: jantziak, armak, eguneroko tresnak, apaingarriak, mosaikoak, margoak, eskulturak, erliebeak eta garaiko dokumentuak...". Horiek guztiak argituta, hurrena ezagutza hori publikoari zabaltzeko unea da. "Normalean ordu erdiko berregiteak egiten ditugu, *off-eko* ahots batekin lagunduta edo guk geuk kontatuta. Gure ardura da ahalik eta didaktikoena izatea, azalpenekin. Funtsean, hitzaldi bizi bat da, baina, kontaktu beharrean, antzeztuta". Pasarte zehatzak aukeratzen dituzte, horiek nola gertatu zitezkeen erakusteko: ehiza, ezkontza, hileta, epaiketa, edo ezagunagoak diren maniobra militarrik. Arlo didaktikoa azpimarratu du Ortizek. "Guk objektuak ahalik eta doitasun handienarekin berreraikitzen saiatzen gara. Baina ez du balio ezku txukun bat egiteak, gero horren ezaugarriak eta zergatiak

jendeari ondo azaltzen ez badizkiozu". Askotan jendeak lehen eskutik ikusitako objektu horiek gero museoetan ikusten dituela azaldu du Ortizek, eta horrek gauzak hobeto ulertzeko bidea ematen du. "Kontua ez da antzeppen hori oso deigarria izatea, jendeak hori ulertzea baizik. Zertan desberdintzen diren zerbitzari baten jantzia edo *domine* baten jantzia, esate baterako". Halakoak ikusi ahal izan dira, adibidez, Zientzia Astearen baitan Bibat museoan egindako berregiteetan.

Gertuagoko garaiak

Erromatarrenetara ez baizik eta hurbilagoko garaietara doa normalean Gasteizko Bataila 1813 elkarteko kide Asier Merino. Duela bost urte hasi zen horretan, emaztearekin batera Waterlooko batailaren bigarren mendeurrenaren antzezpenera joan zenean. "Hain harrigarria eta ikusgarria izan zen, ezen pentsatu bainuen nik neuk hori ere bizi behar nuela". Gasteizen elkarte bat zegoela esan zioten, eta bat egitea erabaki zuen.

50 bat lagun inguru batzen ditu 2014an sortutako elkarteak; horietatik, hogeitaz batek parte hartzen du berregiteetan. "Batez ere neguan elkartzen gara entseguak egiteko, garai horretan berregiteen egutegia ez baitago hain beteta", azaldu du Merinok. Taktika militarren antzeppen publikoak egiten dituzte sarri, baina ez dira horretara mugatzen. Garaiko zibilen janzkera eta bizimoduak ere dibulgatzen saiatzen dira, beti ere, historialarien lana eta garaiko irudiak oinarri. "Horietan abiatuta, jostunengana jotzen dugu, ahalik eta modurik zehatzenean jantziak egin ditzaten, garai horretan erabiltzen diren ehun motak erabilia, hala nola artilezko oihala, zeta eta lihoa.

Frantses soldaduen papera egiten dute –"Tira, norbaitek egin behar du hori"–, baina pixkanaka elkartean fokua irekitzen ari dira, eta karlistadak edota Ameriketako Estatu Batuetako gerra zibila ere antzeztu dituzte. Erraz dute: "Gure ekipamenduan garestiena armamentua da, eta hori XIX. mendean ia-ia berdin mantendu zen".

**EZ ZIREN GARAI
SAMURRAK IZAN,
INPERIOAREN
MUGETAN HERRIAK
PILATZEN ZIRELAKO**

**IDAZKIETARA EZ EZIK,
ITURRI ASKOTARA
JOTZEN DUTE
BERREGITEAK EGIN
AHAL IZATEKO**



Erromatar ezkontza. COHORS PRIMA GALLICA



Tropen mugimendua, Lautadan berreginda. GASTEIZKO BATAILA 1813

"JOSTUNENGANA JOTZEN DUGU, JANTZIAK AHALIK ETA ZEHATZENAK IZATEA LORTU ALDERA"

"ANTZEZPENA DELA JAKINDA ERE, EZIN DUZU IMAJINATU ZELAN MURGILTZEN ZAREN BATAILAN "

ASIER MERINO

Argi dago askoz gehiago ezagutzen dela duela bi mendeko gertakizunaz Erromako garaiez baino. Hortaz, gauza berri askorik ez dute aurkituko, ezta? "Ez pentsa. Egia da asko ezagutzen dela baina noizean behin gauza berriak ateratzen dira. Orain arte ezagutzen ez ziren unitateen uniformeak, esaterako".

Momentuz, XIX. mendean geratu da Merino, baina beste hainbat kide garai berrietara hurbiltzen ari dira. "Orain, adibidez, modan jartzen ari dira tertzioak edo bikingoak".

Kanpotik ikusita, zaila da irudikatzea halakoetan parte hartzen dutenek zer sentitzen duten igartzea, batez ere bataila handiak izaten direnean. Benetan paperean sartzea lortzen dute, ala oraindik erantzuteko duten whatsapp hori datorkie burura? "Ea, bataila iristen denean ezin duzu imajinatu ere zelan murgiltzen zaren horretan. Adrenalina, beldurra... antzezpena dela jakinda ere, sentimendu asko ateratzen dira hor sartuta zaudenean. Zinez, garai horretara joatearen parekoa da". Are gehiago, mundu horretan sartuz gero, "atzera bueltarik ez dagoela" onartu du Merinok. "Oso ondo dago historiari buruz irakurtzea, edota pelikulak ikustea, baina hau ere primerakoa da, aizu!". Hemendik gutxira izango duten erronka berria buruan du orain Merinok. "Aurten, aurrenekoz, Waterloora joango gara, ekainean. Nazioarteko erreferentzia da, eta aukera eman digute bataila horren 205. urteurrenean egoteko".

Ekainera bitartean, entseguetan jarraituko dute, eta seguruenera Inperioa erori aurretiko erromatarrek godoei aurre egiteko bideak asmatzen jarraituko dute. Zorte ona izan. ALEA IACTA EST. ■■■



Erromatar garaiko hileta, Bibat museoa antzetzuta. COHORS PRIMA GALLICA

Belaunaldi baten memoria berreskuratuz

Egiten diren berregite guztiak ez dira publikoak, edo, gutxienez, ez daude horretara bideratuta. Bide hori da Sancho de Beurko elkarteak jorratzen duena. Espainiako Gerra Zibilari buruzko ikerketak bultzatzeaz gain, buru-belarri dabilta euskal herritarrek Bigarren Mundu Gerran izan zuten parte-hartzea ikertzen, *Fighting Basques* izeneko proiektuaren baitan. "Oraintxe bertan AEBetan Bigarren Mundu Gerran lehen eta bigarren belaunaldiko mila euskal herritar baino gehiago ikertzen ari gara", azaldu du elkarteko kide Guillermo Tabernillak. Gerra horietan egon zirenen oroimena berreskuratzeko modua da elkarte honek jorratzen duena. Horregatik, gainerako elkarteekin alderatuta, oso modu desberdinean hurbiltzen dira berregiteetara.

"Jende askok modu ludiko batean parte hartzen du berregiteetan, baina horrek ez du transmititzen gerra bat nolakoa den. Guztiz errespetagarria da egiten dutena, noski, baina ez da gure aukera", azaldu du Tabernillak. Sancho de Beurko elkartearen kasuan, modu pribatuan egiten dute, oso modu zainduan, eta argazkilari profesionalekin lan egiten saiatzen dira, berregite hori publiko zabalari helarazteko.

Gutxi dira elkartean. Dozena erdi bat ikertzaile eta beste dozena erdi berregile. Horien garrantzia azpimarratu du Tabernillak. "Berregilea ez da



Polikarpov I-16 hegazkinaren berregitea. WAIS SVERUS / SANCHO DE BEURKO

aktore bat, ez du fikzioa eskaintzen. Historiaren pasarte bat modu autentikoan eskaintzen du. Proposamen eszeniko bat ematen diozunean, berregileak benetako materialak eskainiko dizkizu", dio Tabernillak. Dokumentazioa ez ezik, xehetasun guztiak kontuan hartu behar direlakoan dago. Horregatik, oso jende gutxiarekin lan egiten dute. "Gure berregiteetan daudenak, adibidez, dagokienez, Ez da diskriminazioa, gauzak

**IKERKETA ETA
BERREGITE PRIBATUAK
BALIATZEN DITUZTE
OROIMENA LANTZEKO**

ondo egitea baizik, doitasunez".

2009an Legutioko batailari buruz egin zuten berregitean ikusten da hurbilpen hori nolakoa den. Horren pasarte bat ikus daiteke Interneten. "Kasu horretan dokumental baterako abiapuntua izan zen, baina, beste batzuetan, liburu baterako materiala izan daiteke", azaldu du Tabernillak.

Living history gisa ezagutzen den joera dago filosofia horren baitan. Historia Garaikideari dagokienez, horretan talde batzuk besterik ez daude Europan. "Modu lasai eta serio batean lan egiten saiatzen gara, deialdi publikoen arabera lan egin behar izan gabe. Behin material horiek landuta, publikoari helarazten diogu".

"Desobedientzia bide izugarri baliotsua izan daiteke"

EKAITZ SAMANIEGO PRESO OHIA

2012an espetxeratu zuten Samaniego, Segi gazte erakundeko kide izatea leporatuta. Haren atxiloketa, ordea, ez zen oharkabeen pasa. Atzera begira, "eskubide zibil eta politikoen eraso" agerian utzi eta dozenaka lagunek elkartasuna adierazteko abiatutako lan dinamikaz harro hitz egin du gazteak.

Testua: **Anakoz Amenabar** Argazkiak: **Mikel Buruaga/ Erlantz Anda**.

Zortzi urteko espetxe zigorra beteta, joan den urtarrilaren 5ean geratu zen aske Ekaitz Samaniego (Gasteiz, 1990). Berriz familia eta lagunekin gozatzeko garaia, Gaztetxeari bisita egin eta atzean utzitako bertsozale kuadrillan murgiltzeko parada. Bidean aurrera egiteko, baina, espetxealdiko urte hauetan guztietan izan duen babes harreman sarea gogoratu nahi izan du. "Ederra izan da halako maitasunarekin bidali diguten indarra jasotzea; zortea dugu preso politikook. Gogo biziz nago jende horrekin bidea egiteko".

Nolakoa izan da espetxealdia?

Kalean bezala, bolada on eta txarrekin. Baina han bizi daitezkeen egoera zail guztietatik aparte, oso momentu onak eta harreman politak ere lapurtu dizkiogu kartzelari, asko ikasi dugu hango kideekin, eskutan izan ditugun liburutxoekin. Egon da gozatzeko tartea ere.

2012ko urtarrilaren 14an atxilotu zintuzten, atxiloketa politikoak salatze bi aste ezkutuan eman ostean.

Nola gogoratzen duzu momentu hura?

Ilusio handiz. Sekulakoa izan zen. Ederra izan zen ikustea gure ingurua halako egoera baten aurrean antolatzen eta hainbeste lagunengana iristen. Nire egoraz harago, gauza hauek pertsonatik harago doazelako, injustizia horietako bat ikusaraztea lortu genuen. Ikaragarria izan zen sortu zen elkartasun dinamika. Bi aste horietan

gordeta egoten lagundu zidaten pertsonak ere gogoratu behar ditut, zelako kariñoa eta zelako borondate onarekin lagundu zidaten. Eta manifestazioaren bukaera ere itzela. Beharbada itsusia da esatea, baina ez zen kartzelara sartzeko modu txarrena izan. Indartsu sartu nintzen, ilusioz beteta eta zerbait indartsua egin genuela erabat sinetsita. Gero hainbat gaztek esan zidaten arrastotxo utzi zuela, eta eurei ere ilusioa eta indarra eman ziela; beraz, are konbentzituago gauza polita egin genuela.

Politikoki eta sozialki nolako balioa izan zuen ekimen horrek?

Halako injustizia eta erasoaren aurrean, botereari arrakalatxoak irekitzea beti izango da ona. Kontra egitea eta egiten diren barrabaskeriak normaltasunez eman ez daitezen erakustea, eta *goitik* lortu nahi dituzten argazki horiek pixkat hondatzea. Egunerokoan bezala, lanean hamaika gaitan dabilen jendeak egin bezala, espazioak irabazi eta arrakalak sortzea beti izango da ederra. Uste dut garai hartako dinamikak ere lortu zuela guk nahi genuen argazkia sortzea eta salaketa egitea.

Ondoren etorriko ziren, besteak beste, Ondarroa, Donostia, Iruñea eta Gasteizko herri harresiak.

Indargarria izan zen halakoak egunkariaren bitartez jarraitzea. Erasoaren aurrean, berriz ere herria antolatzen eta halako dinamika politik sortzen ikustea. Halako dinamikaren *putada* izan zen gero lagun horiek eramaten ikustea, baina bide horrek eta dinamika horrek segur aski

GAZTETXEA



indarra eman zion jende horri, eta denon artean argazia oharkabeen pasa ez zedin lortu zen; seguru balio izan duela ere loturak sortzeko dinamiketan parte hartu zuen jendearen artean.

Desobedientzia zibilaren beharra ere mahai gainean jarri zenuten.

Bai, noski. Uste dut bizi garen gizarte honetan desobedientzia bide izugarri baliotsua izan daitekeela. Normaltasuna hausten da desobedientziarekin, injustiziarri aurre egiten zaio, eta, momentuko egoeraz gainera, nolabaiteko gatzak sortzen du jendearengan. Momentu jakin batetik harago, bide oso emankorra dela uste dut.

Zortzi urte hauetan Euskal Herriko egoera politikoa aldatu da. Nola ikusten duzu?

Kartzelan puzzlearen pieza asko galtzen dituzu, nahiz eta ondo jarraitu dugun barruan. Gasteizera bueltatu naizenean ikusi dut jende pila batek jarraitzen duela hamaika gairekin lanean, eta polita izan da ikustea panorama zail baten aurrean jende asko dagoela animo askorekin gauzak egiten. Gero, nola planteatu duen batek eta besteak lana eta borroka... gehiehi hitz egin aurretik lehen pertsonan ezagutu nahi dut.

Espetxe sakabanaketa politika nola bizi izan duzu? Zaballa, Salamanca, Murtzia eta Zaragozan.

Bizitzea tokatu zait, beste askok ni baino ibilbide askoz ere luzeagoak egin dituzten arren. Kartzela guztiak dituzte beren berezitasunak, eta akaso gu moldatzen gara batera edo bestera, baina senide eta lagunei sortzen zaien egoera da zailena.

Desgaste handiko egoera da, animikoki, ekonomikoki... Eta, zorionez, aspalditik dago jendea arazo hau mahai gainean jartzen.

Espainiako Gobernu berriarekin espetxe politikan aldaketarik aurreikus daiteke?

Hobera izan daitekeen edozein aldaketa sorpresaz harrapatuko ninduke, estatu honek euskal preso politikoekin eta gure mugimendurekin daukan jarrera min egin eta desgastatzekoa delako; zaila egiten zait imajinatzea... Euskaldunon aldetik erreakzio bat eta askatasun nahi bat dagoen bitartean, beti egingo dute horren kontra. Gobernu berriarekin aldaketak badatoz, primeran, nahiago nuke hala balitz, baina ez dut txalotuko estatuak hori egiten duenean; 30 urte daramate politika hori aplikatzen euskal askapen mugimendua desgastatzeko. Beraien legea betetzen hasten badira ez naiz txaloka hasiko.

Ziklo politiko berriarekin ez zara baikorra, beraz.

Giroa desberdina da, eta zikloa aldatu dela nabari da, baina gatazkaren fase armatua itxi zen

moduan, uste dut nahiko zail geratu zela adibidez presoena moduko korapiloa askatzeko. Egunen batean etorriko dira, akaso, baldintzak gauza handiak aldatzeko, baina lanean harrapatu beharko gaitu. Ez dut uste fase honek aukera izugarri berriak ekarriko dituenik; beti lez unean abiatu daitezkeen borroken esku egongo da. Begirada apurtzaile batetik oso arrisksuak ikusten ditut ematen ari diren gauza batzuk, oso zaila delako oreka mantentzea balizko efektibotasuna eta kritikatzeko ari zarena zilegitzearen artean. Beharbada nazio askatasunaren borrokak ez dauka lehen zuen tamaina, eta uste dut pultsu hori normalizazioaren bidetik elikatzea zaila dela. Edozein gaitan apurketa handiago bat desio dugunon artean, normalizazioa ez da bidea. Normalizazioa hausteko zerbaite da, ez elikatzeko.

Bake prozesua zertan da?

Niretzat ez dago bake prozesurik. Egon da abian jartzeko saiakera bat, baina ez da atera, estatu espainolaren xedea bere identitate oso itxiaren bidetik doalako. Espainiar izateko oso eredu itxi batekin lan egiten dute, eta hori auzian jartzen duenari eraso egingo diote, behin eta berriz. Horregatik ematen die halako amorrua preso politikoei babesa jasotzea ongietorrietan. Akaso irainduta sentituko da norbait, baina ez da inoren helburua jendea minduta sentitzea, eta gai horrekin egiten den erabilera politikoa ikaragarria da... Gauza bat da zubiak eraikitzea, konplizitate berriak sortzea, eta beste bat herri honek ezin adieraztea harrotasuna edo poza kalean, nahi duenean eta nahi duen moduan. Niretzat ere iraingarria da Egunsetiko Errosarioaren prozesioa, baina ez dut kalera atera ez daitezen eskatuko. Kiribil arrisksu batean sartzen ari gara.

Aurrera begira, zer pauso eman behar dira?

Geratzen zaigun bakarra bakoitza bere esparrutik lanean jarraitzea da, eta horretan hamaika lagun ari dira. Eta, besteak beste, preso politikoen

"GAUZA BAT DA ZUBIAK ERAIKITZEA, ETA BESTE BAT HERRI HONEK POZA KALEAN EZIN ERAKUSTEA"

"BOTEREARI ESPAZIOAK HARTU ETA ARRAKALATXOAK IREKITZEA BETI IZANGO DA EDERRA"



inguruko gogoeta bat ere nahiko nuke. Egia da asko aipatu dela gaia penatik edo giza eskubide hutsetatik, eta ez dut esango hori horrela izan behar ez denik egoera penagarria delako, baina nahiko nuke preso politikoan auziak, tamalez urte luzez iraungo duenak, behintzat hainbat galdera eragitea zentzu politikoan. Zergatik daude pertsona horiek hor? Zergatik hartu zuten konpromiso hori? Zergatik mendekatzen da estatua?

Hausnarketa horiek albo batera geratu dira?

Apur bat bai. Ulertzen dut konplizitateak sortu eta gai batzuetan gehiengoak eraikitzeko ezin direla gauzak termino batzuetara eraman gatazkaren adierazpide horien aurka zegoen jendearekin, baina faltan botatzen dut galdera politiko sakonak egiteko balio ez izana honek guztiak.

Kartzela beraren inguruko gogoeta egin duzu?

Kartzela eraitsi behar den eraikin eta pentsamolde bat da, eta uste dut alternatibak badaudela. Kartzela beraren existentziaren inguruan galderak egitera gonbidatuko nuke irakurlea. Kalearen maketa bat baino ez da askotan kartzela; kalean ematen diren problematika asko kartzelan ematen dira are nabarmenago, eta hasten bagara benetan kartzela zalantzan jartzen urrats ona izan daiteke gizarte honen dinamika zalantzan jartzeko. Han ezagutzen den jende asko ez dugu kalean ikusten, eurekin gurutzatzen garen arren; ditugun pribilegioez konturatu naiz, lehendik ere jakin bagenekien arren. Argi ikusi dut nola suntsitu dezakeen pertsona bat kartzelak.

Azken urtean auzian jarri da Zaballa, han izan diren istilu eta heriotzengatik.

Heriotza kartzelan eguneroko gauza bat da, edozein kartzelatan. Sarri ikusten duzu bat hil dela ez dakit zein modulotan, beste bat erizaintzan... Oso egoera latzean dago jendea kartzelan; gaixotasun larri batek harrapatzen bazaitu edo menpekotasun handi bat pairatzen baduzu, zaintzak oso eskasak dira eta itxaronaldiak amaigabeak. Hotza dirudi nik horrela esatea, baina hala da; egoera zailen dagoen jendea ez du osatzen kartzelak, gehienetan txartu egiten du.

Kartzelako bizimoduaren inguruko hainbat pasarte jaso ditu Ruben Sanchezek 'Hondarrak' liburuan...

Oso gustora irakurri nuen, eta nabari da ondo dokumentatu zela. Presoen une eta hausnarketa batzuk jaso ditu nik neuk ere eduki ditudanak, eta oso irakurketa interesgarria iruditu zitzaidan; oso modu arinean asko eskaintzen duen liburua da *Hondarrak*, preso politiko batek bizi ditzakeen inguruan. ■■■

Ametsak



GIRA CRESPO
HISTORIALARIA

I 875ean, *Basamortuaren konkista* hasi baino lehen, hau da, bere herriaren hondamena hasi baino lehen, Namunkura lider maputxeak buruzagi militar argentinar bati gutun bat idatzi zion: "Kristauek lursail bat kentzen zidatela amets egin dut. Kasu honetan, nik defendatzen ditudan lursail hauek kentzen badizkirate, orduan, kristauen artera joan eta kalte handiak egingo ditut eta hala jakingo dugu nork dezakeen gehiago".

88 urte geroago baino ez, belaunaldi bat baino askoz gehiago ez, buruzagi afroamerikar batek, Martin Luther Kingek, Washintongen, jendetza baten aurrean diskurtso historiko bat egin zuen: "Adiskideok, gaur diotsuet, gaurko eta biharko zailtasunak eta frustrazioak gorabehera, oraindik amets bat dudala. Amerikar ametsen sakon errotutako ametsa da. Egunen batean, nazio hau altxatu eta bere kredoaren benetako zentzuaren arabera biziko dela amesten dut: gizon guztiak berdin sortu zirela berresten dugu ziurtasun osoz".

Sei urte geroago hil zuten, tiroz.

Batzuetan ematen du amesgaiztoen eta betegabeko ametsen zerrenda luzeegia dela, ezta? Eta, hala ere, gizakiok amets egiten dugu, etengabe. ■■■

**BATZUETAN EMATEN
DU AMESGAIZTOEN ETA
BETEGABEKO AMETSEN
ZERRENDA LUZEEGIA
DELA, EZTA?**

Ate irekiak

MARIBEL LOPEZ DE LUZURIAGA ALONSO

AMA ETA IRAKASLEA

Autobus geltokietako iragarkiak aldatu dituztela ikusi dut gaur, Netflixeko azken estreinuak kendu eta ikastetxe batekoak jarri dituzte. Autobusetan, egunkarietan, irratiak ere... iragarkiak. Pentsa, gure alabaren eskola publikoak horma ere erabili dute hainbat ikastetxeren kartelak jartzeko... eta haur eskoletan eskuorriak banatzen ari dira. Denak ere, sekulako eslogan deigarriekin, denak ere itunpeko eskolak:

Desberdintasunaren balioa edo *Emaitza kontrastatuak* edo *Segurua eta atsegina*... Eta nik neure buruari: Hezkuntza zer da gaur egun? Salgai dagoen produktua? Ez al zen ba eskubidea?

Nafarroako gobernuak ere atera du bere iragarkia matrikula-kanpainarako: *Eskola publikoa zure lehen aukera* lelopean. Eta EAEn, zer? Ba, iazko kartel berbera: *Zatoz gurera* dioena. Data aldatu besterik ez dute egin. Aurtengo kanpainarako ez dute ezer berririk ateratzeko beharra ikusi, ez dute lelorik pentsatu. Esanguratsua iruditzen zait, kariño falta, eta ardura falta ere bai. EAEn ikastetxe publikoak ez al dute ikusgarria den kanpainarik merezi?

Publikoaren zaintzan eta kudeaketan ardura nagusia dutenek eskola publikoa bigarren leerroan kokatu nahi dutela iruditzen zaigu askori. Aspaldi piztu zen alarma kontu



Otsailaren 7an amaituko da aurrematrikula kanpaina. EUSKO JAURLARITZA

honen inguruan. Baina sareen arteko ezberdintasunak gutxitu ezik, areagotuz doazela ematen du, hezkuntza politikak lagun. Eskerrak hezkuntza publikoaren komunitatea (irakasleak, familiak...) ez dagoela hori onartzeko prest, eta benetan ikustekoak dira haien borondatez argitara ateratzen ari diren bideoak, kartelak eta eskola ezberdinetan egiten dena. Euskal Eskola Publikoaz Harro egoteko arrazoi garrantzitsu bat da hori.

Eta haurra matrikulatzeko adinean duten familiek zer? Batzuk merkatuan zehar bueltaka ibiliko dira, ustezko produkturik onena erosi nahian. Beste asko egokitzen zaienera joko dute (hauek hausnarketarik ezin egin, beste lehentasunezko kezka asko baitituzte), eta egongo dira ikastetxe batzuk planteatu arren, ezingo dutenak, ordaindu beharreko hileko kuotengatik edota ematen duten derrigorrezko erlijio-irakaskuntzaz. Beste batzuk eskola publikoaren

aldeko apustua egingo dute, denona eta denontzat delako ustearekin, eta, kontziliazioak uzten dien heinean, haien eskola hobea izan dadin lan egingo dute, guraso elkartetik eta parte-hartze bide ugariak erabiliz. Eskola Publikoaz Harro egoteko beste puntu bat hori baita: jendea, komunitatea, elkarlana. Guztiona dena elkarrekin zaintzeko apustua egiten duen jendea.

Hezkuntzaren funtzioa pertsonen jendarte honek dituen erronkei aurre egiteko tresnak ematea da, eta, desberdintasunak kontuan hartuta (sozialak, ekonomikoak, jatorrizkoak, kulturalak, linguistikoak...), inklusiboki guztiontzako kalitatezko hezkuntza duina bermatzea.

Zer balio ematen zaio helburu horri lehentasuna ikastetxe jakin bateko kide izatearen ("desberdintasunaren balioa") edo "kontrastatu beharreko emaitzak" daudenean?

Ba horixe, ate irekiak.

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

SAREAN

@ANAMENABAR

#KobeBryant

Hogei urteko kirol ibilbidea eta arrasto sakona utzi du Kobe Bryantek saskibaloian. Los Angeles Lakersen hamar urte egin eta bost aldiz irabazi zuen NBA liga. Beste hainbat markaren artean, Olinpiar Jokoetako bi urrezko domina ere irabazi zituen 2008an eta 2012an. Haren heriotzarekin, saskibaloiaz harago izan duen itzal luzea nabarmena da sare sozialetan. ■



**IBAI RUIZ DE
ARETXABALETA**
@txabeto

Saskibaloia kantxa batetik netorrela irakurri dut bere heriotzaren albisteak. Gaur egungo kantxetan ikusten diren hainbat keinu izango dira Koberen ondarea. Goian bego #KobeBryant



LANDER IRUIN
@iruinxo

Ikaragarria. Saskibaloizale amorratua ez naiz inoiz izan, baina haurtzaroko idoloetako bat joan berri da. Saskibaloia historia eman duen jokalaririk onenetariko bat. 41 urte besterik ez. Betierekoa.



**MAITE GOÑI
EIZMENDI**
@euskaljakintza

Egun tristea saskibaloia maite dugunontzat. #RIPMAMBA #RIPKobeBryant



IMANOL MAGRO
@lماغreto

Ezinezkoa da. Mila partida ikusiko nizkion, baita zuzenean ere. Historiara pasako den jokalaria bat. NBAko historiako bigarren eskolta onena, animalia lehiakor bat. #guganbego



**ANDONI
URBISTONDO**
@urbixxx

Koberekin gozatu genuen. Koberekin ikasi genuen. Koberekin saskibaloia maitatu genuen. Koberekin gogoratuko gara beti. Historiako hiru onenetakoa izango delako. Etortzen dena etorrita ere.

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2023

URTARRILAK 24-MARTXOAK 28

12 KANFORAKETA, 3 FINALERREKO ETA FINALA

BAT-BATEKO 12 TALDE IDATZIZKO 16 TALDE

280 PARTIDISTIK GORA

Babesle nagusiak: Arabako Foru Aldarazia, Vital FUNDACIÓN FUNDACIÓN, LABORAL, udapa FACILE, artepan, ALEA



Denboraren berezko erritmoaren lekuko

20 megapixel, modu automatikoa, aurpegi-ezagutza, edertasun-iragazkia, HDR eta *one click* hobespena. Argazkiak di-da batean egiten diren honetan, badira ere bestelako proposamenak. Alejo Moreno diseinatzaileak argazkilaritza estenopeikoa baliatzen du, kamera ilunen sinpletasuna berreskuratuz. Freskagarri-lata baten barruan argazki-papera sartu, zulo ñimiñoa egin eta sei hilabete itxaron. Eguzkiak zeruan egin duen bidea jasota geratzen da, eta, harekin batera, denboraren iragatearen edertasuna. Gasteizko Arte eta Lanbide eskolan ikus daiteke erakusketa, otsailaren 28ra arte.

Argazkia: Alejo Moreno Sainz. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Martin Elexpuru eta Gontzal Fontaneda Iruña Veleia Argitu taldeko kideak. MIKEL BURUAGA

Grafitoen auzia, epaitegien esku

Otsailaren 3an hasiko da Gasteizko Probintzia Auzitegian, Iruña-Veleiako ostrakak faltsutzea egotzita, hiru lagunen aurka irekitako zigor-prozesua; 2009an aurkeztu zuen Diputazioak kereila.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Bide zientifikoaren orde, judiziala jarraitzea. Hori da azken urteetan behin eta berriz salatu duena Iruña-Veleia Argitu plataformak. Datorren otsailaren 3an Gasteizko Probintzia Auzitegian zabalduko den epaiketaren atarian, orain arte esandakoa berretsi du taldeak agerraldi batean. Alegia, Eliseo Gil Lurmeneko zuzendariaren, Oscar Escribano langilearen eta Ruben Cerdan kolaboratzailearen aurka hasiko dena "sekula egin behar ez zen epaiketa" dela, auzitegia ez delako "eztabaida zientifiko bat erabakitze lekurik onena".

Astelehenean, beraz, Iruña-Veleia aferaren kapitulu berri bat irekiko da. Epailen aurrean azaldu beharko ditu Arabako Foru Aldundiak Iruña-Veleiako aztarnategian aritu ziren hiru lagunen aurka jotzeko arrazoiak, eta grafitoak faltsutzeagatik 2009an jarritako kereilaren oinarria.

Epaiketa hamar saiotan egingo dute, zehazki, astelehenetik ostegunera, otsailaren 18ra arte; eta Gasteizko Zigor arloko 1. epaitegian izango da. Astelehenean bertan, hiru akusatuak epailearen aurrean agertuko dira. Ondoren, ikerketako eta Arabako Foru Aldundiko kideak.

Zigor eskaerak

la 300.000 euro arteko isun ekonomikoaz gain, espetxe zigorra ere eskatu dute akusazioek.

Eliseo Gil

- Fiskaltzak bost urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du Gilentzat, ondare historikoaren gaineko delitua leporatuta, eta agiri pribatuan faltsutze delitua egotzita.
- Arabako Foru Aldundiak, berriz, zazpi urte eta erdiko kartzela-zigorra ezarri nahi dio Gili, kalte eta iruzur delitua egotzita.

Oscar Escribano

- Fiskaltzak bost urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du Escribanorentzat.
- Arabako Foru Aldundiak, berriz, hiru urte eta bederatzi hilabeteko espetxe zigorra eskatu du, kalte delitu jarraitua egotzita.

Ruben Cerdan

- Fiskaltzak bi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu du, iruzur delitua eta agiri pribatuak faltsutzea egotzita.
- Aldundiak hiru urte eta bederatzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu du, iruzur delitua egotzita.



Arabako Errioxako Abra taldeko 40 upategik bultzatu dute ekimena. PHOT.OK

Aurrera doa Arabako Mahastiak sor-marka

Jatorrizko izendapen babestua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin, formalizatu egin da 40 upategik egin zuten eskaera.

ERREDAKZIOA ARABAKO ERRIOXA

Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) Arabako Mahastiak-Viñedos de Alava jatorrizko izendapen babestuaren eskaera argitaratu du asteon; Arabako Errioxako Upategien Elkarrean (Abra) sor-marka berria bultzatzeko ekimena martxan jarri zuen 2016. urtean; eta Eusko Jaurlaritzak espedientea izapidetu du. BOEn jasotzen denez, Arabako Mahastiak jatorrizko izendapen babestua izateko eskaerak Europako Batasunaren arautegian ezarritako baldintzak betetzen ditu, eta gaurtik aurrera bi hilabeteko epea ematen du dagozkion alegazioak egiteko.

Rioja Alavesa blogari egindako adierazpenetan, Ines Baigorri Abrako zuzendariak esan du BOEn argitaratzeak eman diola Arabako Mahastiak egitasmoari "ikuspegi

zabaleko proiektua izateko beharrezko duen legezotasuna". Abrako zuzendariak gaineratu du urrats honekin "formalizatu" egin dela "ulertu ez den eskaera bat".

Arabako Mahastiak sor-marka alternatiba bideragarria dela nabarmendu du Baigorri, eta Arabako Errioxa osora zabalik dagoela. "Gure enpresa-proiektuak, proiektu pertsonalak eta bizitzako egitasmoak aurrera ateratzeko irtenbiderik egokienak bilatu behar ditugu. Arabako Mahastiak jatorrizko izendapen bat gehiago da. Aukera guztiak ditugu. Ez diegu arazoei irtenbide bakarria eman behar". Arabako Errioxako 40 upategik baino gehiagok babestu dute Abraren eskaera, eta tramiterako dokumentazioa aurkeztua zuten Eusko Jaurlaritzan 2016ko ekainean. Helburua "ustiapenen etorkizuna bermatzea" da.

Landa eremuaren "prekarizazioa" salatu dute nekazari eta abeltzainek

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Asaja, COAG eta UPA elkarrean estatu mailan bultzatutako mobilizazioen testuinguruan, ehun bat nekazari eta abeltzainek protesta egin dute Espainiako Gobernuak Gasteizen duen ordezkaritzaren aurrean. Bertan, landa eremuko "prekarizazioa" salatu dute, eta UAGAk azaldu duenez, bidezko prezioen falta, ustiategiaren errentagarritasunaren krisi larria eta merkataritza oztupoak dira protestaren arrazoi nagusiak.

2019ko datuak aztertu ostean, "nekazaritza eta abeltzaintzako milaka ustiategiaren biziraupena arrisku larrian jartzen duten egiturazko arazoak" daudela ondoztatu dute.

Sektorearen krisialdia

Nekazaritzako produktuen "prezioen beherakada orokorra" kokatu dute krisialdiaren jatorrian. Horrekin batera, "ekoizpen kostuen areagotzea, merkatuen desarautzea eta nekazaritzaren eredu sozial eta profesionalaren iberizazio progresiboa" salatu dituzte mobilizazioan. Gainera, UAGAk adierazi du ez dagoela ados Nekazaritza Ministerioaren Landa Garapeneko politikaren kudeaketa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora eramateko gobernua hartutako erabakiarekin.

Arabako sektorearen etorkizuna arriskuan jartzen duten hainbat "mehatxu" ere jarri dituzte mahai gainean. Erremolatzaren prezio "jasanezina" aipatu dute, besteak beste.

ESKUALDEEN ARGAZKI SOZIOEKONOMIKOA: GORBEIA INGURUAK



Garraio ardatzen inguruetan kokatu diren industria jarduereri esker aberastasun tasa altuak ditu Gorbeialdeak. PHOT.OK

Kokaleku pribilegiatuan

Gasteiz-Bilbo eta Gasteiz-Debagoiena lotzen dituzten errepideen inguruan sortu diren industria jarduerak eragin dute Gorbeialdean izatea Arabako batez besteko errenta pertsonal handiena.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE
Kokapen geografiko pribilegiatua baliatu du Gorbeialdeak herrialdean posizio ekonomiko estrategikoa finkatzeko. Gorbeia inguruetako biztanleko Barne Produktu Gordina (BPG) altua da Arabako gainerako eskualdeekin alde-

ratuta -42.894 euro-, eta hain zuzen garraio ardatz garrantzitsuen inguruetan kokaturiko industria jarduereri esker lortu du.

Kasu honetan, Gasteizetik gertutasunak lurraldeari mesede egin dio, Gasteiz-Bilbo eta Gasteiz-Debagoiena ardatz estrategikoe-

tan kokatuta dagoelako, eta bertan sortu direlako hainbat industrialde.

Horien artean, nabarmentzekoa da eskualdearen hego-ekialdean, Gasteiztik hamabi kilometrora, dagoen Goiaín industrialdea, Urrunaga eta Urribarriko urtegien ondoan. Inguru honetan, ehun enpresatik gora ezarri dira azken urteotan, horietako asko estatuko nahiz nazioarteko enpresa handiak etamultinazionalak izan dira.

Izaera industrial

Hartara, ekonomia egituraren izaera industrial oso handia da Gorbeialdean, balio erantsiaren %49 manufaktura-industrian baitu iturburu; eta sektorean diharduten tamaina handiko enpresak ugariak dira.

HERRIALDEAN, NEKAZARITZARAKO LURREN PROPORZIO TXIKIENA DUEN ESKUALDEA DA

ARABAKO BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAL HANDIENA DAGO GORBEIA INGURUETAN

Lehen sektorea, ordea, gero eta indar apalagoa erakusten ari da, eta Araban nekazaritzarako lurren proportzio txikiena duen eskualdea da –soilik %21,9–.


Jarduera-tasa altua

Gaindegiak Euskal Herriko eskualdeen inguruan argitaratu berri duen argazki sozioekonomikoan jasotzen da azken urteotan eskualdeko ekonomia gorabidean dagoela, baina ez duela 2008 urteko "sasoia" berreskuratu. Halere, Gorbeia inguruetakoa herritarren jarduera-tasa (%78,5) Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik dago (+1,7), eta langabezia-tasa (%10,1), nabarmen azpitik (-4,4). Eskualdeko herritarren gehiengoak Gasteizen dute lantokia, eta maila apalago batean Debagoienean; eta, era berean, asko dira Gorbeialdean lan egiten duten gasteiztarrak ere.

Goi-formazioa dutenen presentzia handia da (%27,5), eta enplegu kualifikatua duen biztanleria, ugaria. Ingurumari horretan kokatu behar da Arabako batez besteko errenta pertsonal handiena bertan izatea (urtean, 19.190 eurokoa).

	Euskal Herria	Gorbeialdea
Lurralde egitura eta ingurua		
Biztanleria dentsitatea (bizt./km ²)	150,6	21,7
Oinarrizko zerbitzu publikoen gertutasuna (km.)	8,1	6,3
Nekazal lurra (%)	37,6	21,9

	Euskal Herria	Gorbeialdea
Ekonomia eta enplegua		
Jarduera tasa (%)	76,8	78,5
Langabezia tasa (%)	14,5	10,1
Ehun ekonomikoaren dentsitatea	77,3	80,9

	Euskal Herria	Gorbeialdea
Kohesio soziala		
Gazteen errotze indizea (2008/18)	7,7	12
Estatutik kanpo jaiotzeko biztanleria (%)	10,2	6,6
Goi-formazioa duen biztanleria (%)	23,3	27,5

	Euskal Herria	Gorbeialdea
Metabolismo demografikoa		
Biztanleria osoa	3.152.218	8.754
Biztanleriaren bilakaera 2008-2018 (%)	3,1	6,5
Biztanleriaren feminizazioa (%)	51,3	47,5

ITURRIA: GAINDEGIA

Hiriburuko biztanleak xurgatu dituzte

XX. mendearen bigarren erdialdean jazo zen despopulazio joera garrantzitsuari egokien eutsio dion udalerria Legutio izan da, hiriburuaren iparraldean garatzen den industria ehunetik gertu kokatzen baita. Gerora, azken hiru hamarkadetan, Gorbeialdeko egitura demografikoa Gasteizko eta beste eremu batzuetako herritarrak bereganatzearekin indartu da. 45 eta 64 urte bitarteko (eta formazio eta errenta maila ertain-altuko) biztanleria xurgatzeko gaitasuna izan du. Ildo horretan, haurren presentzia indartsua da (%16,0); 15 eta 29 urte bitarteko gazteen presentzia, ordea, ahulagoa da (%13,0); 30-44 urte bitarteko herritarren presentzia ere mugatua da; eta azkenik, 65 urtetik gorako herritarren presentzia (%21,6) Araban edo Euskal Herrian baino murriztagoa da. Gaindegiak egindako ikerketan nabarmendu dutenez, "belaunaldi ordezkapena indartzeko etxebizitza politikak aktibatu ezean, epe ertainera egoera bestelakoa izan daiteke". Izan ere, gailentzen den eraikuntza motaren eraginez, etxebizitza hiriburuan eskuragarriagoa gertatzen da, eta bertara jotzen dute herritar askok.

ESANAK



LOURDES RELOSO
BIDANE INSTITUTUKO ZUZENDARIA
Iturria: Aiaraldea.eus

"Izugarri matxista den gizarte batean bizi gara; diagnosiak matxistak izaten jarraitzen dute"



BEGOÑA LLARENA
FORONDAKO ZUZENDARIA
Iturria: Radio Vitoria

"Forondako aireportuaren terminala berritzeko obrak uda partean hasiko dira"



MARIANO BAYON
ARKITEKTOA
Iturria: Radio Vitoria

"Baikorra naiz orain; ziur nago Gasteizek auditorio aparta izango duela; beharra du"

ZENBAKITAN

Familiak

Ekian eguzki parkeak urtean 15.000 familiaren elektrizitate premiak asetzeko beste energia sortuko du. EAEko eguzki instalazio handiena inauguratu dute aste honetan, Arasur industrialdean, Erriberabeitian. Parkeak 67.000 eguzki panel ditu, eta horietako bakoitzak 355 watt-eko potentzia du. Guztira, instalatutako potentzia 24 MW-ekoa da, eta urtean 40.000 MWh inguru ekoizteko gai izango da. Mondragon Korporazioko Krea Taldea eta Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundea dira Ekian sustatu duten erakundeak, eta beste 26 enpresek ere bat egin dute asmoarekin.

15.000

1,7

Euroak

Trebiñuko Udalak 1,7 milioi euroko aurrekontua izango du aurten. EAJren, EH Bilduren eta Trebiñuko Konderriko Elkarte Independentearen (AICT) bi ordezkarien aldeko botoekin atera dira aurrera zenbakiak. EH Bilduren ildo estrategikoak jasotzen dituzte aurrekontuak: 7.000 euro bideratuko dira konpostatze proiektuak bultzatzeko, euskara ikasteko laguntzak handituko dituzte, eta 4.000 euro bideratuko dira berdintasuna sustatzeko.

16,2

Bidaiariak

Tuvisa garraio enpresak errekor guztiak gainditu ditu 2019an, 16 milioi bidaiaritik gora garraiatu baititu. Zehazki, 16.208.128 lagunek erabili zituzten hiri autobusak iaz. Aurreko urtearen aldean, %2,84ko hazkundera da. Tranbiaren erabilerak gehituz gero, iaz 24,5 milioi pertsona mugitu ziren garraio publikoan Gasteizen. Lineen banaketari dagokionez, L2 da erabiliena. Hain zuzen ere, ibilbide horretan ezarriko da autobus elektriko adimentsua (BEA).

Valderejoko Riberako San Esteban eliza birgaitu dute

EH Bilduko batzarkide taldeak iaz egindako salaketaren ostean, eta Arabako Diputazioaren eta Go-tzaindegiaren hitzarmenari esker, hondamenditik salbatu da XIII. mendeko Riberako San Esteban eliza erromanikoa. Besteak beste, elizaren fatxadak harrobiarekin sendotu dituzte, eta egurrezko leihoak jarri dituzte. Valderejoko parke naturalean dago tenplua.



XIII. mendeko Riberako eliza erortzeko arriskuan zegoen. HISPANIAOSTRA

Armando Llanosi eta Arkeologiaren Arabako Institutuari, domina

"Arabako ondare arkeologikoaren ikerketa, azterketa eta dibulgazio lan goraipagarria" egiteagatik, Armando Llanos ikertzaileak eta Arkeologiaren Arabako Institutuak jasoko dute Arabako Domina apirilaren 28an. Modu horretan, Aldundiak "ikerketa eta hedapen lanarengatik, eta euskal kulturarekiko konpromisoarengatik" saritu nahi ditu.

Uztaberri Eguna hartuko du Lapuebla de Labarcak otsailaren 8an

Egun osoko egitarau oparoa pres-tatu dute otsailaren 8rako, Lapuebla de Labarcan izango den Uztaberri Egunarekin lotuta. Herriko upategiek atea irekiko dituzte bisitariei urteko lehen muztioak eskaintzeko; Maribel Salas aktoreak egingo ditu pregoilari lanak. Dastaketak eta upategien bisitak antolatuko dituzte egun guztirako, eta ez da musika faltako.



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea



LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA

ORONA IDEO OTSAILAK 1
LARUNBATA 10:30

GOIERRI OTSAILAK 8
LARUNBATA 10:30

BILBO MARTXOAK 11
ASTEAZKENA 18:00

ARRASATE MARTXOAK 14
LARUNBATA 10:30

EKINTZAILETZA

BILBO OTSAILAK 1
LARUNBATA 11:00

OÑATI OTSAILAK 15
LARUNBATA 11:00

BIDASOA OTSAILAK 29
LARUNBATA 11:00

ENPRESA KUDEAKETA

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

OÑATI OTSAILAK 15
LARUNBATA 11:00

BIDASOA OTSAILAK 29
LARUNBATA 11:00

HEZKUNTZA

ESKORIATZA OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABAETA OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

HUMANITATEAK

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

GASTRONOMIA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA OTSAILAK 13
OSTEGUNA 18:30

Etorriko zarela jakinarazli

www.mondragon.edu/prest

Boilur beltzari gorazarre

Boilur beltza biltzeko 2019-2020 kanpainaren erdian daude nekazariak, eta aurreko urteetan baino ale gehiago biltzea aurreikusi dute. Igandean, Ribabellosan, ondoaren V. Nazionarteko Azoka ospatuko dute.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Onddoaren bilketa kanpaina bide onetik doa. Abenduan hasi eta martxora arte luzatuko da *Tuber melanosporum* ospetsua biltzeko denboraldia, eta seiehun kilo inguru jasotzea aurreikusi du Arabako boilur beltzaren kooperatibak. Produktua nabarmentzeko asmoz, Boilur Beltzaren V. Nazioarteko Azoka egingo dute, igande honetan, Ribabellosan.

Kooperatibako arduradunek azaldu dutenez, zortzi eta hamar urte lehenago ereindako ondoak biltzen hasi ziren lehen kanpaina 2017-2018koa izan zen, eta horretan bildutako boilur kantitatea bikoiztea espero dute aurten. Onddoarekin landatutako 180 hektarea kudeatzen ditu kooperatibak, batik bat Mendialdean, Añanan eta Aiaraldean, eta 45 ekoizle biltzen dira.

Kooperatibak azpimarratu du boilur beltza "testura orekatuak eta egitura lodiak dituzten kareharrizko lurzoruetan" garatzen dela, eta azpimarratu du Arabak badituela boilur beltza ekoizteko ezaugarri aproposak, lurzoruari eta klimari dagokienez.

Bilketa kanpainarekin batera, eta "boilur beltzarekiko grina mundura zabaltzeko", igande honetan, otsailaren 2an, Boilur Beltzaren V. Nazioarteko Azoka antolatu dute Ribabellosan. Iaz,



Boilur beltza erosteko aukera egongo da igandean, Ribabellosan. PHOT.OK

8.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten ospakizunean.

Polonia, gonbidatua

Miren Santamaria Erriberabeitiko alkateak jakinarazi duenez, aurten, herrialde gonbidatua Polonia da, eta azokan Aleksandra Rosa Gruszecka adituak parte hartuko du, basogintzan ikertzaile eta doktorea da eta bere herrialdeko Baso Ikerketarako Institutuko Baso Ekologia sailean egiten du lan. "Gruszeckaren hitzaldiaz gain, dastatze saioak izango ditugu, 40 postu baino gehiago boilur beltzarekin eta eratorritako produktuekin, zuzeneko sukaldaritza tailerra, txakurrekin boilurra bilatzeko erakustaldia eta haurrentzako

jarduerak", nabarmendu du Santamariak.

Azoka 10:30ean inauguratuko dute, Ribabellosako gizarte etxeko areto nagusian; eta ordutik azokan parte hartuko duten berrogeitik gora erakuslek bisitariei ongietorria egingo diete. Bakoitzak bere herrialdean boilur beltzaren inguruan egiten duen lana azalduko du; halaber, postuen artean aurkitu ahaliko da boilurra landatzeko lehengaiak duten mintegiak, elikadurarekin eta gastronomiarekin lotutako enpresak eta industriak, eta hainbat nekazaritza jarduera. Txakurrekin boilurra bilatzeko erakustaldia 12:00etan izango da, eta 13:30ean boilur beltzarekin platerak nola egiten diren erakutsiko duen *show cooking* egingo dute. ■■■

Naturaz inguratzeko parada

Arabako lurraldeari buruzko informazio orokorra eta 39 gailurretara doazen 30 mendi igoera biltzen dituen webgunea sortu dute; datu guztiak euskaraz eta oso modu errazean daude azalduta.

ESTI LANAO

Arabako txoko ederrak gordetzen dituela ez da kontu ezezaguna. Naturak oparitutako paisaia eta bazter ezberdinez osatua dago lurraldea, eta horietan murgiltzera gonbidatzen duten ibilbideak asko dira. Hori abiapuntutzat hartuta, eta Arabako mendiei eta lurraldeari buruzko informazioa emateko asmoz, web orri bat prestatu du Xabier Beristain mendizale gipuzkoarrak: *arabakomendiak.eus*. Euskara hutsean.

Duela zazpi urte Azkoitia utzi eta Arabara iritsi zen lan egitera eta bizitzera Beristain, eta ordutik hemengo bazterrak ezagutzen ibili da, mendiz mendi. Lehenengo txangoa Toloño aldera egin zuela gogoratu du Alea FM saioan; euripean, eta, eguraldia aurka izan arren, Arabako lurrek eragindako "magnetismo" batek erakarri zuela aitortu du.

Inguruetako informazioa bilatzen hasi zenean, ordea, gehiena gaztelaniaz zela ohartu zen. Horregatik, euskarazko webgune bat martxan jartzea erabaki zuen. Hasierako asmoa zerbait sinplea eta argia egitea zen, eta halaxe izan da. Webgunean sartzean, bi botoi eta Euskal Herriko mapa bat besterik ez daude. Lehenengo botoiak informazio orokorrera bideratzen du irakurlea; bertan Geologia, Hidrografia,



Tartean, San Tirso, Toloño eta Aratz mendietara igotzeko bideak daude zerrendan. E.LANAO

Topografia, Landaretza eta Zuhaitz Gida izeneko atalak ikusiko ditu. Euskal Herriko mapan, bestetik, 39 gailurretara amatzaten 30 mendi ibilbide agertzen dira, ikono batez irudikatuta.

Ikono edo proposamen bakoitzaren barruan, bost atal daude: ibilbidea, mendian ez galtzeko moduko argibideekin; *Wikiloc* tokira bideratzen duen lotura, modu profesionalagoan doazenentzat; eremua ezagutzen laguntzen duen 3D edo animazioz egindako ibilbidea; mendi horren inguruan egon daitezkeen bisitatzeko puntu interesgarrien gomendioak eta, azkenik, argazki galeria.

Araba ezagutu nahi eta mendia gustatzen zaion edonorentzat zuzenduta dago

webgunea. Ibilbide guztiak nahiko errazak dira, eta teknikoki ez oso zorrotzak. Orokorrean, ordu eta erdian egiteko modukoak dira. Gainera, webguneko arduradunarekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, gomendioren bat luzatu nahi izanez gero, edo akats baten berri emateko.

Orain arte 30 ibilbide osatu baditu ere, zerrenda ez dago itxita. Hurrengo irteeretan ezagutuko dituen bideak eta bazterrak ere ezagutzera emateko asmoa du Beristainek.

Momentuz, mendizale arabarrek badute aitzakia eroso jantzi eta Toloño, San Tirso, Aratz edo Zaldiaran bezalako mendietara igo eta Arabako lurraldeak eskaintzen duen paisaiatzat gogotzeko. ■■■

Ur-jauziaren jatorria, leizean

San Migel Zaharraren leize-zuloan jaio da izen bereko ur-jauzi ederra; kilometro batzuk aurrerago, Burgos zeharkatu eta gero, Peñaladros ur-jauzian amiltzen dira kobaren urak, Añesen.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Iberiar Penintsula osoko ur-jauzirik luzeena – Nerbioioika– bertan dagoelako nabarmentzen da Gorobel mendilerroaren ingurua, eta horregatik da hain zuzen ezaguna. Hutsean zintzilik dagoen balkoi bati esker, bisitariak amildegira begiratu dezakete, eta Bilbo aldera doan errekak irekitako kanoi bikainarekin liluratu. Alta, mendizerraren beste muturrean dauden eta ezezagunagoak diren ur-jauzia eta haitzuloa ezagutzeko proposamena dakargu.

San Migel Zaharraren kobazuloak ur-goraldian isurtzen dituen urek osatzen dute San Migel ur-jauzia. Haitzulo osoa Araban dago, nahiz eta bertara iristeko biderik ohikoena Anguloko mendatetik abiatu, Burgostik.

Egun euritsuen ostean edo urtze-aldian bakarrik goza daiteke Urieta mendiaren hegalean sortzen den 60 metroko ur-jauzia, eta adi ibili behar da San Migel Zaharreko kobara bisita egiteko, ezin baita egin leizearen akuiferoak urez beteta daudenean eta eguraldiaren iragarpenak txarrak direnean. Kasu horretan, sagu-zulo bihur daiteke koba, eta bertara sartzea oso arrisksua da. Beraz, egun horietan komeni da

ur-jauzia urrunetik ikustea, kobara sartu gabe.

Anguloko portuan dagoen aparkalekuan utzi daiteke autoa. Metalezko hesi gorri bat zeharkatu behar dugu, eta bidearen bi aldeetan usoen ehiza-postu ugari aurkituko ditugu. Ibilbidea goranzko pista batean hasten da, eta beti gure ezkerretara izango dugun amildegiaren paretik eramango gaitu. Pinuen, pagoen eta lizarren artean igotzen da bidea, paraje ederrek lagunduta.

Aurrera jarraitu eta pixkanaka-pixkanaka ibaiaren

HAITZULOA ARABAN DAGO, NAHIZ ETA BERTARA IRISTEKO BIDEA BURGOSEN HASI

ibilgu harritsura hurbilduko gara. Txirrista natural erraldoia da, eta bertatik jaisten dira haitzuloan jaio diren urak. Bide estuago batetik haitzuloaren aho handiraino iritsiko gara, eta bertara erraz sar daiteke, baina kontu handiz, harri hezeak oso irristakorrek baitira.

Leize-zuloa galeria handi batez osatuta dago, eta alboetan koba txikiak ditu. Barrunbearen oztoporik handiena urpean dauden zonak eta hamabi metroko ur-jauzi

bat dira; horretara baliabide artifizialekin igo behar da (neoprenoa, txalupa pneumatikoa...).

Esan bezala, ez da komeni euri-garaian edo eguraldi txarra dagoenean kobazuloa bisitatzeko. 1999ko urtarrilean, mendizale batek bizia galdu zuen, barrunbearen barnealdeko ur-goraldi handi batek harrapatu eta ezin izan baitzen garaiz irten.

Otso-zuloa

San Migeleko otso-zuloa da inguruan aurkituko dugun beste ustekabe eder bat. Zoritzarrez, zonaldeko otso-zulorik garrantzitsuenetako bat den arren, oso hondatuta dago eta hondarrak bakarrik gordetzen dira. Otso-zuloak bi metro baino gehiagoko altuera duten bi pareta ditu, otsoa hiltzen zuten hobi batean elkartzen direnak.

Bertara iristeko, kobatik atera eta 150 metro atzera egin beharko dugu, hesi batera iritsi arte. Hesia igaro eta gero, ezkerretara joko dugu bidexka batetik, eta hamabost minutu gora egin ostean, pagadien artean, gainalde batera iritsiko gara. Eskuinaldean ikusiko ditugu otso-zuloaren aztarnak barreiatuta.

Bertatik, maldan behera, Angulo bailara gure eskuinera utziz, ordu erdi eskasean berriz egongo gara mendateko aparkalekuan. ■■■



San Migel Zaharrera bidea

Kuadrilla: Aiaraldea.

Udalerrria: Amurrio.

Luzera: 4,5 kilometro Anguloko mendateko aparkalekutik.

Oharra: Ehiza-denboraldian edo behelainoa dagoenean ez da komeni ibilbidea egitea.

Animalien zopa

Bilatu irudietan agertzen diren animalien izenak.

URKIDE IKASTETXEA - LH 6B



Irabazleak:

Hala Bedi tabernan afaria: Aritz Ichisoa Lata



ZEA MAYS eta Sega Sound Killers zuzenean

ZEA MAYS eta Sega Sound Killers taldeek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, otsailaren 15ean, larunbatean, 21:00etan. ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu.

Parte hartu otsailaren 5a baino lehen. Otsailaren 7ko ALEAn argitaratuko ditugu irabazleen izenak.



GoPro motako kamera [ZOKKETA IREKIA] Laboral Kutxari esker

GoPro motako kamera urperagarria. Kirol eta aisialdi jardueretarako diseinatuta (mendia, bizikleta, korrika...) eta wifi konexioduna. Urtarrilaren 24tik, otsailaren 5era bitartean **harpidetzen edo harpidetza berri bat lortzen duzuenen artean** zozkatuko dugu. Irabazlearen izena otsailaren 7ko aldizkarian argitaratuko dugu.

OHARRA: Oraindik bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Lisabõ eta Lepora

Muinoko Hotsak zikloaren barruan. Gaztetxeak eta Hala Bedik antolatuta. *Ostirala 31, 21:00etan, gaztetelean.*

LEGUTIO Errime

Kontzertu akustikoa. *Larunbata 1, 16:30ean, Desjabetuen hotelean.*

BERTSOLARITZA

MATURA Bertso saioa

Alaia Martin eta Ruben Sanchezekin. *Ostirala 31, 21:00etan, elkartean.*

ZALDUONDO Arabako Bertso Kuadrilla Artekua

Gorbeialdeko Azkenak eta Lautadako Ahuntzak taldeak. *Larunbata 1, 14:00etan, Zeledon Toki elkartean.*

GASTEIZ Arabako Bertso Kuadrilla Artekua

Errexala eta Sumendiola Bete Poto taldeak. *Larunbata 1, 21:00etan, Errexala elkartean.*

IKUS ENTZUN

ARAIA 'Munduan barrena bizikletaz'

Lorentzo Rojok egindako bidaien inguruko solasaldia; hamabost urte egin ditu bizikletaz bidaiatzen. *Larunbata 1, 18:00etan, Andra Mari aretoan.*



'NIK SINISTEN DIZUT'

GASTEIZ 'Nik sinisten dizut'

'Nik sinisten dizut: borbaketaren kultura eta sanferminetako kasua' liburua aurkeztuko du Samara Velte kazetari eta idazleak. Egileak indarkeriaren izaera poliedrikoa aztertzeko zenbait gako emango ditu hitzaldian. *Astearte 4, 19:00etan, Sorginenea etxe feministan.*

GASTEIZ 'Sounds of Resilience'

Maite Arroitauregi *Mursegok* Sarajevora eta Gorazdera egin duen bidaia du abiapuntu. Jatorrizko bertsioan, euskarazko azpidatziekin. *Astearte 4, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxera.*

HAURRAK

LEGUTIO Ipuin kontalaria

San Blas jaien barruan. *Larunbata 1, 11:30ean, kultur etxean.*

GASTEIZ Sukaldaritza

Hostorezko gozoak egiteko tailerra. 4-8 urte bitartean. *Larunbata 1, 12:00etan, Lakuako gizarte etxean.*

DULANTZI 'Kolore anitzak'

Antzerki musikala, animazio digitalarekin. 3-9 urte bitarteko haurrentzat. *Igandea 2, 18:00etan, Txema Blasco auditorioan.*

Jimmy Jazz Gasteiz

URTARRILA

Os. 31 LA REGADERA

OTSAILA

Lr. 1 BON SCOTT REVIVAL SHOW (70'S AC/DC SHOW)

Os. 7 NOVEDADES CARMINHA

Lr. 8 K.O. ETILIKO + OBSESIÓN FATAL

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



Otsaila ²⁰²⁰

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

04 as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Hizkuntza: nekari, enologia, kultura

Sounds of resilience

Aukeraketa: Patricia Lopez Amaiz

Zinema: jatorriko bertsiotan euskarazko azpitituluekin

Filmazpit: ekin elkartearen

07 or. | 19:00 Inaugurazioa



Basque misreadings.

BERRIAN gaizki irakurriak
Edu Zelaieta eta Eneko Ugarte

Gonbidatu bereziak: Ane Gebera eta Beriat Goitia

09 ig. | 19:00 Dantza-saioa



Izen-ematea: oharrekin eta liburuarekin 20k. 10k

Ilunabarrean dantzan

Josu Garate

Ilunabarrean dantzan baltoik-a eta euskal dantzen plaza

12 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Zizelkariak

Aitor Servier, Mikel Urriza eta Jon Marauri

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa

GEUren elkartearen

19 az. | 19:00 Ikastaroa



Izen-ematea: 100k eta 20k

Kriola

Wednesday Silva

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza garbixuak ezagutzeko zikloa

UEUren elkartearen

20 og. | 19:00 Mahai-ingurua



Bidortzeleko Eneko Goitia eta Vilasoa

Sorginak, diziplinatu beharreko emakumeak, atzo eta egun

Amaia Nausia Pimoulié, Amelia Barquin Lopez eta Mainer Garcia de Bikuña Quintana

IKAren elkartearen

25 as. | 19:00 Ikastaroa



Izen-ematea: 100k eta 20k

Soziolinguistika Hiztegi Txikia II. Motibazioa

Urtzi Arrieta Archilla eta Lander Muñagorri Garmendia

UEUren elkartearen

27 og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Tabernan

Iker Martinez & Zaldi herrenak

Lurralde berriak diskoaren aurkezpena

Eskilarapeko Soinuak, formatu txikiko kontzertuen zikloa

28 or. | 19:00 Inaugurazioa



euskara ibiltaria

Euskara Ibiltaria

Irakurri, entzun, usaindu eta ukitu daitekeen erakusketa

Euskaltzaindia: ekin elkartearen

Otsailak 07 > 23

Erakusketa



Basque misreadings

BERRIAN gaizki irakurriak
Edu Zelaieta eta Eneko Ugarte

Otsailak 28 > Apirilak 26

Erakusketa



Euskara Ibiltaria

Irakurri, entzun, usaindu eta ukitu daitekeen erakusketa
Euskaltzaindia

oihaneder.eus

Iratxe Zabalat Martinez, 7 - Viloria-Gasteiz

LAGUNEDUNAK

Diario

ALEA

berria

radio vitoria

MITOLOGIA



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Viloria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

2020-2021 ikasturtea



Zatoz
gurea!

Ikastera,
Jolastera, hazterera...

Aurrematrikula / 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ONLINE AURREMATRIKULA / www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO